

...eta **kitto!**

753 zkia. 2011-II-25

ASTEKARIA

TOKIKOM



Koko-jantzien sasoia piztu da

Erreg. zkia. C046815351532K

Grupo



**CATALANA
OCCIDENTE**

145
Años Contigo

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Faxa. 943 702 206
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@catalanaoccidente.com

DENETARIKO
ASEGURUAK (Emilio de los Toyos)

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu*

* Hortz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. EZIN ZAIE beste promozioei GEHITU.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Kezka Dantza Taldea

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

HANKA-ERREN.- Erren. "Hanka errena izan arren, beste asko baiño azkarragua zan mendixan gora".

HANKA HAUSI.- Hanka apurtu, **nor-nork** eran erabiltzen da. "Keixa-arbolatik behera jausitta, hankia hausi dau".

HANKA TROKAU.- Orkatilla okertu. "Arratetik behera zettorrela, hankia trokau eban".

HANKA-JOKUA(K).- Lasterketa, ihesa. "Hara heldu giñanerako zalapartak eta jentien hanka-jokuak baiño ezbazebizen...".

ESKUTITZAK

BADATOR KORRIKA 17

Aurtengo **Korrika 17** jadanik prest dago maitatu, ikasi, ari... **Euskalakari** lemapean, apirilaren 7an Trebiñutik irten eta apirilaren 17an Donostian amaitzeko.

Eibarrera, Soralezetik iragan ondoren, apirilaren 13an arratsaldeko zortziak aldera iritsiko da. Egun horren prestaketa eta sortuko diren lanei aurre egite-

ko Korrika batzordea eratuko dugu Eibarren. Batzorde horretan parte hartzeko gogoia eta euskarari laguntzeko borondatea besterik ez dugu behar. Beraz, interesaturik baldin bazaude, etor zaitez martxoaren 2an, arratsaldeko 19:30etan AEK EUSKALTEGIAN egingo den lehenengo bilerara.

EIBARKO AEK

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Bizkaia Aretoaaren inaugurazioan, bai Azkuna Bilbo-ko alkateak eta baita Celaá Hezkuntza kontseilariak ere, Unibertsitatearen buru Goirizelaiari aretoetarako aukeratutako izenen artean gipuzkoar gehiegi -Mitxelena, Baroja, Txillida, Oteiza, Axular edo Etxepare-zudela aurpegiratu zioten. Behin ipinita, esan zezaketen aretoei izena ematen dieten guztiak gizonezkoak direla, baina horretaz ez ziren konturatu"

(Arantza Urretabizkaia, idazlea)

"Espainiako Kritika Saria esaten zaio, baina errealitate euskal kritikari gutxi batzuek hartutako erabakia da. Saria ematen digute epaimahaiak bat egiten badu idatzi dugunarekin; nolako epaimahaia, halako sari-duna. Modu zuzenean esanda, ezker abertzalearen sentiberatasuna eta mundu ikuskera islatzen duten idazleei sekula ez zaie eman Euskadi Saria, eta horko zenbait jendek partzialkeria ikusten dute"

(Fermin Etxegoien, Literaturako Euskadi Saria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

ENPRESEDAKO LAGUNTZAK

Compite Programaren barruan enpresendako emoten diru-laguntzak eskatzeko epia zabalik dago. Enpresen konpetibidade ahalemenari laguntasuna emoteko pentsauta dagozen diru-laguntzak gastuen erdixa pagatzera ailegatu leikez eta Debegesara jua leike informaziño eske, bertan dinamizauko dabelako programia.

BOLUNTARIKUEEN PREMIAN

Nagusilan nagusixekin hainbat jardueratan laguntzen jarduten dabenen alkartiak boluntariuak bihar ditte euren jardunari erantzun ahal izateko, izan be oin momentuan dagozen 26 lagunekin horretarako larri ibiltzen dira. Interesa dakenak Egogain Gerontologia Zentrora juateko aukeria daka, astegunetan 11.00ak eta 13.00ak bittartian.

HARRERARAKO FAMELIXAK

Gipuzkoako Foru Aldundixak 12 urtetik beherako 22 umeri harrerria egitteko prest dagozen famelixak bihar ditte. Egunotan Diputaziñuak egindako deixari esker 50 bat famelixa lortu nahi ditte, horren artian umiak hartzeko egokixenak aukeratu ahal izateko.

Sahararen aldeko azokia

ASTEBURUAN BIGARREN ESKUKO LIBURU AZOKIA IPIÑIKO DABE MARTXAN SAHARAUTZ ELKARTEKUA, Saharako famelixeri laguntzeko dirua batzeko asmua-rekin. Zapatuan egun osuan eukiko dabe zabalik azokia, 11.30xak aldera hasi eta 20.00ak bittartian. Domekan, barriz, goizez bakarrik egongo dira, 11.30xetan hasi eta 15.00ak arte (egurdixaren arabera eta jendia animau ez-kero, luzatzeko aukeria aurre-kusten dabe antolatzailliak).



Saharautz Elkartasun Taldia "sahararrak bizi dabene egoera latz eta larrixa arintzeko asmoz" sortu eben eta hainbat ekimen garatzen ditue helburu horri jarraituta. Bestiak beste Oporrak Bakean programaren bittartez

udan errefuxiatuen kanpamentuetatik umiak ekartzen ditue. Eskola barrixa egin dabe eta anbulatorixoa bat be badago, eta horrendako materixala erosteko erabiliko dabe azokan batzia lortzen dabene dirua.

Laguntzaillieri errekonozimendua

ZIENTZIAREN ETA BERRIKUNTZAREN HIRI IZENDAPENA LORTZEN LAGUNDU EBEN erakunde, enpresa eta kolektibueri eskerrak emoteko ekitaldixa ospatu eben eguazte-nian Eibarko Museuan. Eibarko Udalak 1927ko Industriaren eta Arteen Erakusketako Diplomaren kopixa bana emon zetsen izendapenian lagundu eben 14 taldietako ordezkariexeri. Errekonozimendua jaso ebenak Eibar Foball Taldea, Debegesa, Tekniker, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Alfa Taldea, Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseilua, El Corte Inglés, Armeria Eskola, BIC-Berrilan, Udako Euskal Unibertsitatea, CodeSyntax eta Eibarko Egoitza Zentroa izan ziran. Ego Ibarra batzordiak 2009xan zaharberitutako agirixa Udala



Hamalau alkarte, enpresa eta erakundeetako ordezkariak diplomarekin. / SILBIA HERNANDEZ

txibuan gordeta dago eta bertan 1927xan gure herrixan eguazte taillarretako ugazaba guztien siñadurak ageri dira, orduan urtian egindako erakusketan parte hartu eben herri guztien armariexekin batera.

Bestalde, sarixa jaso eta jarraixan, Gasteizen presentau

eban Eibarrek heziketa-eskintza teknologixa barrixen esparrura hedatzeko dakan asmua: Unibersidadiaren kasuan, energixa barriztagarrixetan oiñarritutako ingeniariitza ikasketak eskinduko lirakez eta, Armerixa Eskolak gauza bera egingo leuke FP-n.



ANTONIO ZUBIAURRE JAUREGI

2011ko otsailaren 21ean hil zen, 78 urterekin

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

asteko
6.500
datua

etxebizitzak pasau biharko dabe Jaurilaritzaren inspekziño teknikua. 50 urtetik gorako etxiak aztertuko ditue zelan daguezen ikusteko. Azken datuak 5.000 edifizio txarto daguazela diñue.

MARTITZENIAN PRESENTAU EBEN www.eibarkosozialistak.com webgunia (www.socialistaseibarrees.com gaztelazko bersiñuan) alderdi sozialistaren egoitzan, Casa del Pueblon. Web orrixak, bestiak beste, Eibarko PSE-EEren inguruko informaziñua biltzen dau, ibilbide historikuari errepasua emoten detsan atala be badaka eta, horrerri guztiari laguntzen, alderdi sozialistarekin lotutako ekitaldi inportantien argazkixak be sareratu ditue. Webgunian bertan, bestalde, Miguel de los Toyos alkatiaren blog-era zein Facebook-erako loturak erabiltzaillien eskura ipiñi ditue, aurkezpenian alka-



De los Toyos alkatea Eibarko sozialisten web-orrixaren aurkezpenian. / SILBIA HERNANDEZ

tiak berak esan ebanez, "herri-tarrek hartuemonan izateko bide barrixa zabaltzeko asmoz". Hiru helbidiak webgune bakarrian eta alkarri lotuta


agertzen dira eta, aittatutakuekin batera, intereseko hainbat dokumento, argazki, lotura eta bestelako baliabidiak erantsi detsez.

Armeria Eskolako enbajadore mendeurrenien

DATORREN EGUAZTENIAN ALKARTUKO DIRA ARMERIA ESKOLAKO MENDEURRENAREN OSPAKIZUNEN barruan antolatutakuen alde jardungo daben enbajadoriak. Tartian izango dira, bestiak beste, Imanol Arias aktoria, Juan Luis Arregi Gamesako presidente-ordia, Mikel Urizarbarrena Panda Softwar-eko sortzaillia, Natividad García Dinitel enpresako arduraduna eta Aitor Arakistain Paris-Dakarren jardundako pilotua. Portalean 16.45etan hasiko dan ekitaldixan eskolaren 100. urteurrenerako preparam daben programia presentauko dabe eta De los Toyos alkatiarekin bate-



ra, Eusko Jaurilaritzako ordezkarien bat eta Markel Olano Ahalduen Nagusi-xa egotekuak dira.



Zezenbideko eskillara mekanikuen lanak hasi ditue / SILBIA HERNANDEZ

Etxeberriaren diseiñuak Cibelesen irabazle

EGUAZTENIAN CIBELES PASARELAKO "EGO" N PRESENTAU ZITTUAN BERE DISEIÑORIK BARRIXENAK Roberto López Etxeberria eibartarrak, bere moduan Cibeles "ofizialetik" kanpora geratutako beste 9 diseiñatzaillerekin batera, es-



tatu maillan modaren mundu horretan etorkizuna izan leikiazen sortzaillieri eskindutako jardunaldi berezixan. Madrilgo pasarela gaiñian euren biharra erakutsi daben 45 egillien artian, bakarrik gizonezkuendako koleziñuarekin parte hartu daben bakarra izan da 2008az geroztik Etxeberria siñadurarekin biharrian diharduan diseiñatzaillia.


Eskillara mekaniko barrixak

EGUNOTAN EHINGO DETSE ESKILLARA MEKANIKUAK JARDIÑETA KALIAN IPINTZIARI, azken hilliotan horretarako zulua egitten biharrian jardun ostian. Biharrak dirala eta, aste honetan kalinaren zati batian aparkatzerik ez da izan eta tarte-ka-marteka bidia moztu detse ibilgaillueri zeñi oiñezkueri. Bestalde, Zezenbide kalin eskillara mekanikuak ipintzeko biharrak oin dala egun batzuk hasi zittuen eta martxa onian doiaz. Oin momentuan, eskillarak ipiñi ahal izateko zulua preparatzeko biharrian dihardue eta, hori dala eta, Juan Gisasola kaletik Zezenbidera juan-etorrixan ibiltzeko eskillarak ezin leikez erabili eta alde horretan bidia moztu egin dabe.

Ardantzako geltokixa bixar inaugurauko dabe


ZAPATU GOIZIAN, 11.00-ETAN INAUGURAUKO DABE ARDANTZA GELTOKI BARRIXA bestiak beste Miguel de los Toyos alkatiak eta Iñaki Arriola Herrilan eta Garraio sailburuak. Estaziño kaleko geltokixaren barrikuntzareki neta urte honen amaierarako Azittaiñen sortzia aurreikusitakuarekin, gurian bost gera-

leku eukiko dittu trenak: Azittaiñ, Estaziño, Ardantza, Amañako sarrerria eta Unibersidade Laborala. Oin momentuan 11.000 lagun baiño gehixago ibiltzen dira Elgoibar eta Ermuaren artean astegunetan eta urte osoko datuak hartuta, barriz, zerbitzuaren erabiltzailliak 3'5 millioitik gorakuak dira.



Alfa taldea naziñoartekotzen


ALFA TALDIAK BI MILLIOI EUROKO INBERSIÑUA EGINGO DAU Rumagol Errumaniako bere fabrikan. 2008xan zabaldu eben tallarra eta orduan sasoiari lau millioiko inbersiñua egiñ eben, baiña bertan mekanizaziño eta estanpaziñorako industria-laguntzailleirik ez izatiak urteera integrala eskinduko detsen zerbitzuak sortzera eruan dau Eibarko enpresia.



Andrazkuen talde barrixa

UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUKO PARTE DAN EIBARKO EMAKUMEEN MAHAIXAK alkarte barrixa hartuko dau aurretiazian: "Mujeres al cuadrado" edo M2. Alkartiak lehendikan mar txan eguazen beste andrazkuen taldiekin bat egittia "oso modu positibuan" balorau dau Eva Juez ziñegotzixak, taldiak tratu txarrak jasaten dittuen andrazkueri laguntzeko oiñ hurrengo preparau daben protokolua egitten biharrian jardun dabela gaiñeratuta.

anzorik anzo



Millioi bat euro Amañako plazarako

Eusko Jaurlaritzako Hiriber proiektuaren laguntasuna jasoko dabe Amañako plazia urbanizatzeko biharrak: bestiak beste torrien parian daguan frontoiari estalkixa edo tellatu modokotxia ipintzeko asmua dake, hori ingurua urbanizatziarekin bater. Gitxi gorabehera urtebeteko iraupena eukiko daben obriak millioi bat euroko kostua eukiko dabela pentsatzen dabe, baiña Jaurlaritzaren diru-laguntzia erabilitta erdixa baiño gehixago pagauko leukie, laguntasuna 615.138 eurokua izango da eta. Proiektuak herri barruan eurittik babesteko moduko guniak sortzeko Udalaren asmuari erantzungo leukixo eta Sansaburun egindakuaren bidetik juango lirakez proiektuaren ardatz nagusiak: garajien gaiñian daguan frontoia konpondu eta tapatziarekin batera, albo bixetako plazatxuak be barriztatu eta ekipatzeko asmua dake, oin daguazanak baiño aukera eta zerbitzu gehixago eskintzeko asmuarekin. Bestalde, eta eguraldittik babesteko tokixak preparatzeko asmo horeri helduta, laster hastekuak dira Txaltxa Zelaixan, epaitegi pareko parkian eurittik babestutako parkia prestatzeko biharrak.

eibar kaleka

Milaflores kalia

Arraterako bidian, goruntz goiazela ezkerretara, Itzio parian hasten da izen hori daroian kalia, benetan malkartsua dan aldapan bertan. Mandiola basarri auzoko basarri bixetan daka jatorrixa izenak: lehelengoz XVIII. gizaldixan aittatzen dan Milaflores Goikuan (1747xan Julian de Etxabarria han bizi zala "Billaflores") eta askoz barrixagua dan Miraflores Behekuan.

Pegora kopurua: 13.



Milaflores Goikua, kaliari izena emoten detsan basarrixa.

Emakumia/gizonezkua: desbardiñak izatez edo egittez?




SANTIAGO AGIRREGOMEZKORTA
71 urte
bihargiña

Fisikoki argi dago diferentia garala; beste gauza guztietan gaittasun bera dakagu, ezta? Gaur egun andrak gizonezkueri milla buelta emoten deskue: unibersidadian bertan ikustia besterik ez dago, nahiz eta gero, famelixaren arduria hartzen dabenez, goiko postuetan gitxiago ikusten diran.

IGNACIO TREBIÑO
65 urte
jubilaua

Andrak diferentia dira: fiñaguak, konpromiso senduaguak hartzen ditue eta aurrera egitten dabe. Kapazidadian igualak gara: hori bai, seme-alaben arduria emakumiak hartu edo eureri lagatzen detsegu eta horrek frenau egitten ditte lanpostuetan edo politika munduan aurrera egittia...




ALMUDENA GALVÁN
38 urte
etxeoandria

Jaixotzatik desbardiñak garala uste dot. Fisikoki bardiñak ez garala begibistakua da, baiña uste dot izakera aldetik be diferentia garala. Mailla haundi batian berez desbardiñak garalako eta, beste alde batetik, gizartia berak be desbardiñ egitten gaituelako.

ESPERANZA AGIRRE
77 urte
etxeoandria

Fisikoki desbardiñak bagara be, gizartia egitten gaittu desbardiñago. Emakumiak funtziño eta ardua batzuetarako prestatzen gaitue eta gizonezkuak beste batzuetarako. Zeozertxo desbardiñak bagara be, ez dot uste horrenbesterako danik.



ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Paleta iberikoa
Etxeko foie
Txipiroy, patata eta tipulin nahaskia
Ganbak plantxan*

*Legatza saltsan almejekin
edo Bakailaoa pikillo saltsan*

*Solomilloa Idiazabal erara
edo Karrillera ondoekin*

*Degustazio postrea edo
Txokolata mousse-a Armagnac erara
edo Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

Tokia gordetzeko:
943206348

25 € + BEZ

**Txandakako
Ingeniaritza**

*irakasi eta lan, gure duak
egiten ditugu!*

Ate irekiak MARTXOAK 5
(11:00etan)

IMH - Elgoibar-Tfnoa: 943744132 ingeniaritza@imh.es - www.imh.es



Aurreko astian erretzeko labia sartu eben Matsarixako maskotendako tanatorixuan. / FELIX MORQUECHO

Badatoz tanatorixuak

Euren etxietan hiltzen diranak gero eta gitxiago dira gaur egun: sasoi hori jua zan eta oiñ ospitaletan amaitzen dittue euren egunak gehixenak. Horrez gain, famelixak be gero eta sakabanatua go bizi dira eta, hori gitxi balitz, etxiak gero eta txikixaguak izanik, toki askorik ez da izaten hildakua gaubelaitzeko. Ohi-

ttura aldaketa horrek ekarri da be tanatorixuaren biharra eta urtiak dira Hegoamerikan belatorixua deitzen daben hori gure artian sartzen hasi zala. Estatuko lehelengo tanatorixua, Iratxe funerariaren inizatibaz sortutakua, 1975ian zabaldu zan Iruñean.

Gero, inguruko erretzeko lehelengo laba Bilbon jarri zan

martxan, 1989xan, eta gaur egun 35 bat izango dira Euskal Herrixan dagozen instalaziñuak. Inzineraziñuen datuak erakusten dabenez, gaur egun hildakuen %60xa baiño gehixago dira.

Halako instalaziñuak zabalitzeko, hainbat neurri bete bihar dira, tartian ubikaziñuarena (erabillera erresidentzialeko

Batek baiño gehixagok esango eban honezkero: Zer da hau? Jendiarendako tanatorixorik oindiokan herrixan ez dakagunian, txakurrendako ipiñi bihar dabe? Matsarixan maskotendako proiektua aurrera badoia be, pertsonendakua be egittekua dira Otaola hiribidian; eta oinguan emoten dau, oiñ arte ez moduan, azken proiektu hau errealidadia bihurtuko dala. Kasu batian zein bestian, tanatopraxia zerbitzuak eskinduko dira Eibarren hamendik aurrera, hillotzak bihar daben zerbitzu egokixak eskinduz.

eraikiñetan ezin dira jarri eta zerbitzu horretarako bakarrik diran lokalak eta beheko plantan daguazanak lehenesten dira), banandutako sarrerena (jendiarendako bata, funerariaren zerbitzuendako bestia) eta tanatopraxiarako eta belatorixorako gelak izatia.

Tanatopraxia deitzen joko hillotza higienizau, konserbau,



M A R T X O A

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

A P I R I L A

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

M A I A T Z A

					1	
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

E K A I N A

	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			




Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairvartea
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com
www.etakitto.com

Egin zaitez
...eta kitto!ko
bazkide!



2011ko
udaberriko
ekulturr
eskaintza
...eta kitto! Euskara Elkarte



Gaur egungo hildakuen artian, %60 bat erretzen dira eta beste %40 ehortzi.

enbalsamau, berregiñ eta estetikoki zaintzeko erabiltzen diran praktiken multzuari. Gela horretan kamara frigorifiko bat izan biharko dabe gitxienez hilotzak konserbatzeko. Eta belatorixuan, bestalde, banandutako zonaldiak izan bihar dittue hilotza erakusteko (errefrigeratutakua) eta jendia eta famelaxakuak kristalera bestaldetik ikusteko aukeria izan deian.

Otaola 27ko proiektua

Unibersidade Laboralaren onduan, baiña herrirantz etorritta, tanatorixua egitteko bai mena emon detsa Udalak Bilboko La Auxiliadora funerarixari. 70 metro karratuko atarixa izango dau, belatorixorako 44 metroko sala bi eta agurtzeko beste sala bat, azken hau 62 metrokoa. Aparte, "gorputza prepartzeko gunia izango dau eta garajia be eskatu jakuen, sarrerria Otaolatik izango dabe-

na", diñoskue Udaleko Hirigintza departamentuan. Lizentzia badake be, "horko lur industrialia aztertzen dihardue une honetan". Arazo handixena holako proiektuetan, esaten deskuenez, "inguru erresidentzialarekin erabilleria konpatiblia egittia izaten da".


Aurreko proiektuak

Tanatorixuak Eibarren egitteko konsulta urbanistikuak izan dira lehen be. Holan, Nuestra Señora de Begoña funerarixak Azittaiñen egiteko asmua erakutsi eban. Tratamientos Térmicos Bolunburu eguan tokixan egitteko intenziñua eken, "Azittaiñen 12xan, elizaren atzian", baiña espazio libre-etako normatibarekin eta "eraikiña be ordenaziñotik kanpo" eguala-eta, horretarako ezin zala erabilli esan jakon. 2008xan egin-dako lehelengo eskaera horrek lur horretako erabilleran aldaketa ekarriko ebala eta

ezetza jaso eban "Plan Orokorra aldatu biharko zala-eta". Ate batzuk zabalik geratu baziran be, proposamenen arabera, behinbetiko ezetza jaso eban 2009xan.

Beste proiektu bat izan zan Funeraria Bilbainak egindakua, Txaltxakuako terrenuetan ipintzeko asmuarekin, "Ipuruako kanpoko igerilekua eta autopistaren artian". Eroskiren atzeko aldian juango zana, Laster enpresaren onduan (Otaola 11n, zehatzaguak izateko), 2009ko azarokua da eta "konsulta egin baeben be, horko gaixa korapillatsua-gua zan". Terrenuak ez dauka kalifikaziñorik, "kirol ekipaziñorako ez bada, nahiz-eta oindiokan haraiño ez aillegau". Asmo hori be bertan behera geratu zan, baiña baleike berrito be heltzia hamendik gitxira.

Azken bi horren aurretik izan ziran beste proiektu batzuk be. Udalian gogoratzen da-



Maskotendako tanatorixoko sozixuak. / FELIX MORQUECHO


MARTXOA

Martxoak 10, eguena

Korrika Kulturala: Sahara Marathoia: kirolarekin desertuan zehar. 19.00etan Portaleko areto nagusian.

Martxoak 17, eguena.

...eta kitto! Euskara Elkartearen **Urteko Batzar Nagusia**. ...eta kitto!-n.



APIRILA

Apirilak 9, zapatua

...eta kitto! Euskara Elkartearen **Bazkide Jaixa**. Armeria Eskolan.

Taldeko argazkia, bazkaria, umeentzako tailerrak, puzgarriak eta zirko-tailerra, musika eta bingo herrikoia.

MAIATZA

Maiatzak 4, eguaztena

Ipurterre ipuin lehiaketaren ebazpena.



Maiatzak 6, barixakua

Illunabarrian bertso-afaria. Bide Alde elkarte gastronomikoan, 21.00etan.

Maiatzak 11, eguaztena

Ipurterre ipuin lehiaketako sari banaketa ekitaldia. 10.00etan Unibertsitate Laboralean. Magia ikuskizuna.


Maiatzak 14, zapatua

Berbalagunentzat "Bilbo Ezagutzen" **txangoa**. Bus turistikoan Bilbo ezagutzeko eguna.

EKAINA

Ekainak 1, eguaztena

Illunabarrian, "Apaizac Obeto: azken balea txaluparen kondaira" dokumentala. Zuzendaria: Jon Maia. Arratsaldeko 19.00etan Portaleko areto nagusian.



Ekainak 4, zapatua

Mintza Eguna. Euskal Herriko mintzapraktika taldeetako kideen topaketa eguna.

Ekainak 19, domeka

Euskal Jaialdia, herri kirol erakustaldia, 19.00etan Untzagan.

Ekainak 23, eguena

San Juan sua, 23.00etan Untzagan.

AUTOBUSAK IKASTOLEN ALDEKO JAIETARA:

Maiatzak 8: Herri Urrats, Senperen.

Maiatzak 29: Ibilaldia, Ondarroan

Ekainak 19: Araba Euskaraz, Laudion.

...eta horrez gain:

Barixakuaero ...eta kitto! astekaria

Hilero Txikitto! umeen aldizkaria

Astero Berbetan mintzapraktika taldeak

Itzulpenak eta diseinu lanak

www.etakitto.com



Mugica funerariaren tanatorixuak sei urte daroia Elgoibarren eta, honezker, Eibarko jendia ohittu da aldameneko herrira bisitatzera hildako bat agurtzeko orduan.

be 90. hamarkadan, Azittaingo poligonua egittiarekin bat halako asmo bat izan zala. Hasierako baimenari, baiña, jendiaren protestak jarraitu zetsan, *“batez be, krematorixuaren kontrako jarrera egualako”* eta azkenian hor geratu zan, sei urte geruago asmuak aurrera ez ebal jo ikusitta.

Mugica Elgoibarren pozik

Eibarkuok ohittuta gagoz halakuetan Elgoibarrera juaten, han badira urte batzuk tanatorixo bi dakela-eta. Mugica funerari-

ko Juan Carlos pozik dago bertako funzionarioarekin eta jendiak eskatzen dabeneri erantzuten detsala diñosku. Gogoratzen dau, gaiñera, Eibarren ipintzen ahalegindu zirala, baiña zailtasunak izan eta Elgoibarren egittia proposau zetsela: *“Sei urte edo daroiaguz bertan tanatorixuarekin. Idoia Mugica jabiak hamen ipintzia nahi eban arren, ezin izan genduan eta, jarraixan, Elgoibartik jaso genduan proposamena eta aprobetxau egin genduan”*. Belatorixua eta krematorixua dake bertan eta zerbitzuarekin jendia pozik daguala diño. Zeozer barririk sartzeko asmorik be ez dake, *“momentuz behintzat”*. Bartzelonako baten musikia eskintzen dabela eta jakin arren, *“hamen ez dogu halako proposiziñorik jaso”*. Gogoratzen dau tanatorixua ipintzeko *“hainbat permiso lortu bihar izan genduzen: osasun aldekuak, keiak... ISO lortziak beria eskatzen dau”*. Hiru sala dittu Elgoibarko tanatorixuak



2008xan Azittaiñen tanatorixua egitete eskaeria jaso zan Udalian.

belatorixo moduan funzionatzen dabezenak, beste bat despedidarako, erresponsua egitete beste bat, hall-a eta buleguak. Hildakuek artian, erretzen diran eta lurperatzen diranen arteko bataz-bestekua *“%60-%40 bueltan”* kokatzen dabe Mugican, *“gero eta gehixago dira-eta erretziaren alde josten dabena; azken honek famelixaren intimidadian egitten dira gehixenbat”*.

Maskotendako tanatorixua

Matsarixan


Personendako tanatorixua gero eta gertuago badago be, maskotendakuak hartuko detsa aurria gure herrixan. Matsarixako poligono barrixan ipiñiko da martxan maskotendako krematorixo-tanatorixua martxuaren amaiera inguruan. Lagun izango dau izena eta Kristina Ruiz, Silvia Luque eta Aitor García eibartarrak izango dira enpresaren soziuak, poligonuan martxan ipiñiko dan lehelenguetako eraikiñian. Aurreko astian sartu eben lokalian erretzeko erabiliko dabena labia: lau tonelada pisatzen dau eta 100 kilora arteko animalixak erretzeko egiña dago. Teillatutik sartu bihar izan eben laba hori eta, bere pisua lurrian ondo banatuta egon deixan, plataforma bat be jarri bihar izan dabe.

Tanatorixuak 119 metro karratu dittu eta, labiarekin batera, konserbaziñorako kamara frigorifikua, bulegua, sarrerria eta belatorixorako tokixa daka. Eskinduko dabena zerbitzua personekin egitten dan antzerakua izango da; halanda be, aukeria egongo da animalixak kolektiboki erretzeko be, horko errautsak jaso barik. Gipuzkuan maskotendako beste tanatorixo bat dago bakarrik, Astigarragan, eta Eibarkua probintziako bigarrena izango da. Herriko hirukotiak Bartzelonan jaso eban zerbitzu hau ipintzeko bihar izan dabena informaziñua, *“han halako zerbitzuak askoz be garatuago dagozelako eta normaltasun haundixarekin funzionatzen dabelako”*.



**JOSEAN INCIARTE BELIO
X. URTEURRENA
(2001-II-22)**

**Zure familiak eta lagunak
ez zaituzte ahazten**



TEEN-
AUEA



Spring tides da markaren izena. Asier Corrales eibartarrak eta Tolosako Daniel Penas, Mikel Pradini eta Aitor Lopezek asmo berria kaleratu dute, gazteei zuzenduta batez ere eta, bereziki, surf mundua gogoko dutenentzat. Web orriari azken ukituak ematen dihardute, maskota ere kaleratzear daude, eta gero eta produktu gehiago merkaturatzeko asmoa dute.

ASIER CORRALES eta DANIEL PEÑAS:

“Surf-aren olatua aprobetxatu nahi dugu”

- Nondik sortu zitzaizuen produktu hau kaleratzeko ideia?

Anekdotikoa izan daiteke, baina Zarautzeko hondartzan izan zen, surf egin ondoren ilargi bereziaren azpian. Orduko hartakoak jarraipena izan behar zuela-eta.

- Enpresaren izena ere hortik doa, ezta?

Bai, “marea biziak” esan nahi du: hor ere ilargia presente dago.

- Zein produktu eskaintzen duzue zuen markarekin?

Orain arte kamisetak eta suda-derak, basikoak, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat. Eta baditugu hainbat akzesorio ere: giltzatak eta gorroak, esaterako; orain erlojuak ere atera behar ditugu. Gehienbat surfari buruz enfokatuta daude eta hor Aritz Tola eibartarrak taulak egiten ditugure markarekin. Surf taulak hiru astetan kustomizatuta jasotzeko aukera eskaintzen dugu.

- Produktu gehiago kaleratzeko asmorik baduzue?

180tik gora kamiseta diseinatu ditugu, logoa eta izenarekin, eta gure asmoa da jendeak marka ezagutzea, batez ere. Poloak eta jertseak ere atera nahi ditugu eta, uda aurretik, bainujantzi, galtza

motzak eta sirak kaleratzeko asmoa dugu.

- Zuen merkatua nora zabaldu nahi duzue? Jendeak web-ean aurkituko zaituzte, ezta?

Espainia osoa izango litzateke. Web orriari dagokionez, gaur egungoa behin-behinekoa da; behin-betikoa lantzen dihardu Zoraida Domínguez eibartarrak; diseinu grafikoan aditua da. Maskota ere bihar bertan da kalean.

- Zelako itxura izango du maskota horrek?

Surfa eta ilargia lotze horretan, astronautaren kaskoa duen surf-flaria izango da.

- Hutsunea ikusten zenuten esparru horretan?

Bai, surf inguruko produktu gehienak kanpotik datozelako; ez dago hemen sortutakorik.

- Badago hor jai batzuk antolatzeko asmorik...

Zarautzen eta Eibarren egingo ditugu inaugurazio jaiak, uda aurretik. Bertan taulak, erropak eta akzesorioak zozketatuko ditugu.

- Zuek aurkitzeko?

Springtides.es helbidean, telefonoa ere hor dugu eta jendeak Facebook-en bat egiteko aukera ere badu.

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

etxola
JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Ketesa 2010

bulego eta kolektibitateko
instalazio osoak eta materiala

altzariak, oalkiak, osagarriak, liburutegiak...

bulego materiala
enpresetan banatzen dugu


Estaceta Kalea, 12

48940 Eibar

tel. 943/27979 / 943/27979

fax. 943/27968

email. info@ketesa2010.com



Ekintzaile berrien formakuntza indartzen

Otsaila hasieran autoenplegu eta ekintzaitza ardatz izan zituen jardunaldi berezia hartu zuen Uni Eibar-Ermuak, Eibarko bere ikastetxean: Debegesa Debarrenako Garapen Ekonomikorako Elkarteko Vanesa Hortasen eskutik. Enpresa Proiektu Berriei Laguntzeko saileko arduradunak emandako ikasgaiak gure herriko ikastetxean Business Process Outsourcing espezialitatea ikasten diharduten gazteei zuzendutakoak izan ziren. Gabonak aurretik Txiletik 13 ikasle joan ziren Uni-ra, administrazio arloko ikasketak osatzeko ikastaro berezia egitera. Otsaileko jardunaldi berezia, berriz, Uni Eibar-Ermua ikastetxeak antolatu zuen, enpresa berrien sormena bultzatzeko helburuari jarraituta sortu zen Urrats Bat programaren barruan.

Martxoan, Uni Encounter

Bestalde, ikastetxe beraren eskutik baina informatika sailaren ardurapean martxoaren 11tik aurrera VII. UniEncounter abiatuko da, jardunaldiak aurkeztu eta inauguratzeko hitzaldiarekin. Hala ere, martxoaren 15, 16 17 eta 18an egingo dira jardura nagusiak. Lehenengo hiru egunetan goizez (11.30etatik 14.30etara) eta arratsaldez (16.00etatik 20.00etara) teknologiarekin zuzenean lotutako hainbat gai jorratzeko hitzaldiak emango dituzte, besteak beste Elurnet, inguruko udalak, Code&Syntax, eFaber, Deustuko Unibertsitatea, Eskola 2.0, Irontec, Gailen eta beste hainbat ordezkatzan izango diren hizlariak, Iratxe Esnaola, Maite Goñi eta beste aditu batzuekin batera.

Eta jardunaldiak agurtzeko, ohikoa denez, ikasleek




Txiletik hainbat ikasle talde etorri da Uni-ra euren ikasketetan sakontzeko asmoz.

eurek antolatutako sareko jokoaren inguruko lehiaketak jokatuko dituzte, 16.00etan hasi eta 20.00ak bitartean. Jardunaldiotan ikasitakoa osatzen joateko eta nolabaiteko jarraikortasuna emateko as-

moz, datozen hileotan, hil bakoitzeko lehenengo martitzen jardunaldietan jorrotutako gaiekin zerikusia duten kontuen inguruko hitzaldiak emango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Artea femeninoan

Aurreko barixakuan Portalean, erakusketa aretoan aldi berean inauguratu zituzten erakusketa biak estilarri begira oso ezberdinak izan arren, biak lotzen dituen ezaugarri bi badaude: kasu bietan emakumezkoen lanek osatutako erakusketak dira eta, gainera, artista biak gazteak dira.



Areto bakarra izan arren, bertan ikusgai dauden erakusketek artearen alde bi islatzen dute. / MAIALEN BELAUSTEGI

Rosa M^a Valbuena margolari bilbotarra-ren proposamenak hirietako txokoak protagonista dituzten olio eta akuarelak batzen ditu. Berezitasun bat bilatzekotan, koadroek daukaten tamainari erreparatzea ezinbestekoa da, ohikoak baino askoz handiagoak direlako. Bilbo, Zarautz, Donostia eta beste hainbat hirietako arkitekturako elementuei ikutu pertsonal eta berezia ematen die arte irakaslea ere baden artista honek.

Areto berean guztiz independentea den beste erakusketa aurkituko du ikusleak:

Izaskun Alvarez-Gainza Donostiako artista gazteak grafikagintza eta koloreari eskaini nahi izan dizkien espazio bakar eta erabat pertsonalak: metakrilatozko foko eta xaboi-burbuilak egiteko makinaren aldamenean artista berak egindako argazkiak eta grabatuak ere ikusgai ipini dituzte.

Portaleko erakusketa aretoak bi horizontzat tokia izango du martxoaren 13ra arte eta, ohikoari jarraituz, martitzenetik domekara bitartean egongo da bisitatzeko aukera, 18.30etatik 20.30etara.

Erradikal libreak eta antioxidanteak

Musika talde bat? Mugimendu fundamentalista berri bat? Ba ez, erradikal libreak (edo askeak) eta antioxidanteak gure gorputzaren funtzionamendu arruntarekin lotuta dauden hainbat substantzia dira.

Bizitzarako behar diren jarduera guztietan (arnasketa, odol-zirkulazioa, digestioa...), erreazio kimikoen bidez etengabe sortzen diren zabor substantzia oxidantei erradikal libre deritzegu. Hala ere, ingurumeneko kutsagarriak edo hainbat elikagaik (elikagai prozesatuak gehienbat) substantzia horien ekoizpena handitzen dute.

Oxidazio prozesua edo erradikal libreen sormena, jardunbide naturala, arrunta eta beharrezkoa denez, gorputzak berak ere euren aurkako hainbat substantzia ekoizten ditu osasun orekari eusteko: horiek dira antioxidanteak. Elikagai asko ere antioxidante ezberdin ugarien emale dira, barazkiak eta frutak bereziki (bitamina C, A, E, selenioa, flabonoideak...).

Neutralizatu ez diren erradikal libreek eragin onuragarriak dituzte bakterio eta birusen aurkako borrokan, sistema inmunitarioaren laguntzaile bihurtzen direlako. Soberan dauden hondakin horiek larregi direnean arazoak datoz, gaixotasunaren jatorri izan daitezke-eta. Erradikal libreen gehiegikeria saihesteko, haurtzarotik zaindu behar dugu gure bizimodua (elikadura orekatua, ariketa fisikoa egokia eta gure esku dauden arriskuak baztertuz) ahalik eta osasuntsuen eta bizi kalitate onenarekin heltzeko zahartzarora.




Silvia Zuluaga

NOLA EMAN BOTIKA UMEARI, HONEK BOTAKA EGIN GABE



Gaur egungo botikek zapore goxoagoa badute ere, ume askori kostatu egiten zaie botika hartzea. Honako trikimailuak proba daitezke, baina beti ere sendagileari kontsultatuz, botikak eraginkortasunik gal ez dezan: botika eman aurretik hozkailuan gorde, hozak zertxobait kentzen duelako botikaren zapore txarra; zuku edo jaki bigunekin nahastu (haur txikien kasuan ez nahastu botika biberioan, dena edango ez balu botika ere ez lukeelako dena hartuko); xiringa bidez ematen badiogu, pixkanaka eman, masailko barruko aldean edo mingainaren atzeko aldean. Dena dela umeak botika hartu eta gero botaka egingo balu, ez eman botika gehiago, deitu sendagileari zer egin jakiteko.



ZER JAN DEZAKET KOLESTEROLA JAISTEKO




Kolesterola ezinbestekoa da gure gorputzak behar bezala funtzionatzeko, baina osasuntsu egoteko tarte normalen barruan egon behar du. Kolesterol "txarra" eta "ona" ditugu; lehena altua izateak bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua dakar, eta aldiz, onak arteriak babesten ditu. Jaten dugunak eragin zuzena dauka batean zein bestean. Adibidez, kolesterol altua badaukagu animalia-jatorriko elikagaiak ekidin beharko ditugu: haragia (gorria batik bat), arrautzak (zuringoa jan daiteke) eta esnekiak (gantzik gabeak jan daitezke). Kolesterol txarra jaisten lagunduko digutenak berriz: oloa, zahia eta zuntza duten zerealak; Omega 3 eta gantz-azidoa duten arrainak (izokina, sardinak eta atuna); intxaurrak, almendrak, hurrak; oliba-olioa eta esterol eta estanol erantsia duten elikagaiak (margarina, zukuak eta jogurtak). Jaten duguna zaintzeaz gain, ariketa fisikoa ere oso lagungarria da.



EDOZEINEK EGIN DEZAKE TATUAJE BAT



Ez, batzuei kontrako erreakzioa egin dakiekelako tatuajeak gorputzean. Tatuajeak, piercing-ak bezala, ezin zaizkie adin txikikoei egin, eta kontraindikaturik daude diabetiko, haurdun eta dermatosi aktiboak dutentzat. Psoriasis eta liken planoak dutenek ere ez lukete egin beharko. Bestalde, hainbat botika bateraezinak dira tatuajeekin, adibidez isotretinoina (aknari aurre egiteko tratamenduetarako) eta antikoagulatzaileak (eragotzi egiten dute tatuajeak edo piercing-ak eragindako zaurien orbaintzea).





INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

25. zenbakia. 2011ko otsaila

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**




Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com

**...eta kitto! aldizkariaren
INMOBILIARIEN GEHIGARRIA**



AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



Salerosketak
Traspasoak
Tasazioak
Alokairuak

Errebal, 19
943 70 16 57
Faxa. 943 70 07 51

**INMOBILIARIA ESTUDIO
PS XXI**



Higiezin-zerbitzuak
eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. 943 74 23 06 20870 ELGOIBAR
www.inmobiliariapsxxi.com



HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 12 - behea 20600 EIBAR
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

943 201213
615 474057



IbaiOndo
inmobiliaria



Bidebarrieta 24, behea

ZURE INMOBILIARIA

- Etxe eta lokalen erreformak.
Interiorista: Nagore Goikoetxea (mokka interiorismoa)

Operazioa gurekin itxi ezkerro deskontu ikusgarriak.

www.ibaiondoinmobiliaria.com

...eta kitted! aldizkariaren INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

**LARRAGEST.
EIBAR**

**Bidebarrieta, 12 - behea
Tel. 690 61 07 15**

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Untzagako dorrea	150 m ² . Etxebizitza altua. Hiru fatxadara begira.	Galdetu
EIBAR	Errebal	200 m ² . Etxebizitza altua. Terrazarekin. Etxe bi egiteko aproposa.	Galdetu
EIBAR	Zezenbide	80 m ² . Etxebizitza altua. Dena kanpora. Leku ona. Igogailua.	237.000 euro
EIBAR	Barakaldo	70 m ² . 3 logela, egongela, sukalde-jangela. Kalefakzioa. Igogailua. Egoera onean.	219.000 euro
EIBAR	Eibarko txikito	2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa eta ezinhobea. Igogailua. Ganbara.	Galdetu
EIBAR	Txirio kale	Eraikin berria. Apartamentu berria.	150.000 euro
EIBAR	Bista Eder	Berria. 2 logela, sukalde-jangela, 2 komun. Igogailua, Kalefakzioa. Jantzita.	Galdetu
EIBAR	Bista Eder	2 logela, egongela, sukaldea, komuna. Igogailua. Kalefakzioa.	185.000 euro (negoziagarriak)
EIBAR	B. Sarasketa	3 logela, sukalde-jangela, 2 komun. Igogailua, kalefakzioa. Berriztuta.	165.000 euro
EIBAR	Urki	Buhardila (gazteendako oso egokia).	70.000 euro
EIBAR	Urkizu	3 logela, egongela, sukaldea, komuna berriztuta. Bistak parkera.	155.000 euro
EIBAR	Errebal (Eraikin berria)	OFERTA. 4. pisua. 2 logela, egongela, sukaldea, 2 komun. (228.000 €) Garajea + trasteroa (30.000 €)	
EIBAR	Otaola etorbidea	Garajea. Sarrera ona. 33 m ² . Altura bikoia. Auto birendako. Egokia karabana eta abarrerako.	Galdetu



salerosketak
■
errentamenduak
■
traspasoak
■
balioztatzeak

**agencia
inmobiliaria
Juaristi**
A.P.I.: Rosa Juaristi

Arragueta, 2 bis B-behea
20600 EIBAR Tel. eta Faxe: 943 20 08 60
rosa@inmobiliariajuaristi.com www.inmobiliariajuaristi.com

Udaletxean zein Portalean ibiliz gero, batek baino gehiagok egingo zuen topo Nuriarekin, urtarrilaz geroztik atezaintza kontuetan laguntzen beharrean diharduen neska berriarekin. Urkiko 31 urteko gazteak aurretik ere egin du beharra, Matsarian dagoen Gureak lantegi babestuan, baina Atzegik eta Gureak Taldeak elkarlanean sortutako Pauso Berriak izeneko programari esker, lantegian egiten zuen behararekin zerikusi gutxi duten zereginak egiteko gauza dela erakusteko aukera dauka gazteak. Eta pozarren dagoela ikusteko aurpegira begiratu baino ez dago.


NURIA RUIZ, udaletxeko eta Portaleko laguntzailea:

“Nere beharrean dena gustatzen zait”

- Nolakoa da zure lanegun bat?

Goizean goiz hasten naiz, 08.30etan. Goizaren lehenengo zatia udaletxean beharrean ematen dut. M^a Carmenekin batera, Correos-eko bulegora joaten gara, eguneroko posta jasotzera eta, jarraian, banatzen hasten gara. Nik beheko eta lehenengo solairuetan dauden bulegoetara eramaten ditut gutunak eta bestelakoak eta M^a Carmenek goiko solairuetako bulegoak egiten ditu, berak banatzen du han laga beharreko posta. Pare bat ordu edo joaten zaizkigu zeregin horretan.

- Eta udaletxean amaituta, Portalean jarraitzen duzu zuzre behararekin, ezta?



Bai, hala da. 10.30ak jota, udaletxetik buelta egin eta kafetxoa sobatu batzuk lagunduta hartzeko bost bat minutuko tartetxoa izaten dut. Horren ostean atzera ere beharri heltzen diot. Portalean Nuriaren laguntza izaten dut, atezaintzan ibiltzen naiz, edo aldameneko bulegotxoan: fotokopiak egiten ditut, udaletxean bezala Portalean ere bertako bulegoetan posta banatzen ibiltzen naiz, telefonoz etxebarruko enkarguak eta abisuak jasotzen ditut, gutunazaletan etiketak ipini, sobre barruan sartu beharrekoak sartu, gelaren bat piskat txukundu... azken batean, agintzen dizkidaten lantxoak egiten joaten naiz, irtetzeko ordua ailegatu bitartean.

- Zer da zure beharretik gehien gustatzen zaizuna?

Dena gustatzen zait, beharrean oso ondo pasatzen dut, jendearekin berba egiten, gutunak banatzen... Oso pozik etortzen naiz, neregatik eta baita etxekeogatik ere, ama eta familiako beste guztiak oso pozik daude.

- Hala ere, aurretik ere beharrean ibilitakoa zara Gureak-en. Zer egiten zenuen lantegian?



Urtarrilean hasi zen Administrazioan beharrean Nuria Ruiz.
/ SILBIA HERNANDEZ

Gureak-eko lantegian beharrean ibili nintzen denboran kableak egiten ematen nuen eguna, orain egiten dudanarekin alderatuz gero oso ezberdinak dira toki bakoitzean egin beharrekoak.

- Eta bietatik zein gustatzen zaizu gehien, lehenengo beharra ala oraingoa?

Oraingoa! Oso pozik dihardut udaletxean zein Portalean.

- Inguruan dituzun lankideekin ere pozik zaudela dirudi, euren inguruan esaten dituzunak entzunda behintzat.

Bai, oso “nagusi” onak dauzkatz eta asko laguntzen didate edozer gauza egin behar dudan bakoitzean, horrekin ere ezin naiz kexatu.

Ezgaitasun intelektuala dutenen integratzaile hitzarmena

Eibarko Udalak eta Gureak taldeak, bestalde, lan merkaturan ezgaitasun intelektuala dutenen integratzaile hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmenari jarraituta, bestela integratzeko zailtasunak izango lituzketen 10 lagun beharrean hasita daude honezkero, bosnakako talde bitan banatuta: herriko hainbat auzotan lorezaintza eta herriko altzarien mantentze-lanetan dihardute beharrean. Eta Sarbideak, Kuxta Zeharok kudeatutako eta Foru Aldundiak finantzatutako programarekin beste eibartar gazte batek, Javier Zuazok, Tekniker fundazioan dihardu beharrean. Udalak lehenagotik ere ezgaitasunen bat dutenen integratzaile hitzarmenaren emanak ditu, besteak beste buzoietara egiten den banaketa lanetako batzuk Gureak-eko beharginei eskainita.



Argazkian, Maider, Garazi, Xabi Uriguen, Elene Gisasola eta Julen Chacón.

Deporreko eskiatzaile alebinak nagusi Somporten

ASTEBURUAN SOMPORTEKO ESKI ESTAZIOAN HUESCAKO PEÑA GUARA TALDEAK ANTOLATUTAKO lasterketetan bikain jardun zuten gure ordezkariak eta, Huesca Hiria Martxaren X. edizioan, Elene Gisasola eta Naia Saez 1.a eta 2.a izan ziren, hurrenez hurren, eta Julen Chacón eta Xabi Uriguen 2.a eta 3.a. Alebin mailan hartu zuten parte aipatutakoek, kilometro eta erdiko proban. Eta, Peña Guara Biathloi-Laser III. edizioan, Jone Sáezek 3. postuan

amaitu zuen infantil mailako hiru kilometroko proban.

Aurreko probak zapatuan jokatu ziren; domekan, bestalde, Huesca Hiriko absolutu mailako proba jokatu zen, zazpi kilometroko ibilbidearekin. Emakumezkoetan, Maialen Uriguen 30.a izan zen, Elene Gisasola 31.a eta Garazi Uriguen 33.a; gizonezkoetan, Chacónek 58. postuan amaitu zuen.

Asteburu honetarako programatutako txangoa egin egingo dela diote Eski Batordekoek.

Xakeko talde bien berdinketa azken jardunaldian

EUSKAL LIGAKO TALDEAK EIBARRREN BERTINDU ZUEN LEIOAKO ALTZAGA TALDEAREKIN, Haritz Garro eta Jon Aranaren garaipenekin eta Diego Olmo eta Maykel Hernándezen porrotekin. Asteburuan Bilbon jokatu du Klub Deportiboko lehen taldeak, bertako Peña Rey Ardid historikoaren aurka.

Gipuzkoako 2. mailako taldeak,

bestalde, Legazpin jokatu zuen bertako Santikutz taldearen aurka. Hor Mikel Larreategik eta Emilio Jose Freirek irabazi zuten eta Manolo Lópezek eta Jose Antonio Garridok ez zuten zorte bera izan. Deporren Bergarekin jokatu duen azken jardunaldiaren faltan, sailkapeneko liderra da eta igoerako play-offa jokatuko sailkatuta dago.



Deporreko lehen taldeak Bilbon jokatu du asteburuan.

Duatloia izango da berriro ere Eibarren


AURREKO BI URTEETAN JOKATU EZ DEN PROBAK JARRAIPENA IZANGO DU AURTEN, Eibarko Duatloiarren XX. edizioarekin. 2008an jokatu zen orain arteko azkena; hurrengo urtean, iragarrita bazegoen ere, bertan behera geratu zen azkenean; eta iaz ez zen antolatatu. Eibar Triatloi Taldeak antolatzen duen proba maiatzaren 8an jokatu da eta sprint modalitateko proba izango da. Euskal Herriko zirkuiturako pun-

tuagarria izango da, otsailetik maiatzera arte jokatu diren beste hamabost probekin batera (batzuk distantzia motzean eta beste batzuk sprintean): horietatik hiru Gipuzkoan jokatu dira (Oñatikoa eta Azkoitikoak izango dira beste biak), bederatzi Bizkaian eta lau Nafarroan.

Asteburu honetan hasiko da denboraldia, bihar Mungian eta etzi Barakaldon jokatu diren probekin, biak ere sprint modalitatekoak.



Bi urteko etenaren ondoren, Eibarko Duatloia berriro ere jokatu da.



CAYETANO MENÁRGUEZ VEGARA

(2010eko otsailaren 28an hil zen)

ORAIN DELA URTEBETE JOAN BAZINEN ERE, GURE BIHOTZEAN JARRAITZEN DUZU.

Zure emazte eta seme-alabak

Bere aldeko MEZA ospatuko da otsailaren 27an (domeka), eguerdiko 12.00etan, SAN ANDRES parrokan.

Bihurri munduko beste marka berri baten bila

MENDARON BIZI DEN ERNESTO EZPELETA "BIHURRI" EIBARKO AIZKOLARIK ERRONKA BERRI BATI EHINGO DIO martxoaren 12/13ko asteburuan eta oraingoan hiru metroko perimetroko pago egurra esku bakarrarekin moztzen ahaleginduko da. Lan luzea du aurrean eta zalantzak ditu amaituko duen, baina aurretik ere ohituta dago horrelako markak egitera: 2005ean bost metrokoa moztu zuen hiru ordu eta zazpi minututan eta 2008an bi metro eta erdikoa moztu zuen esku bakarrarekin eta 22 minututan amaitu zuen lan hori.



Martxoko bigarren asteburuan egingo du ahalegina Bihurrik

Areto-foballeko Debarrenaren talde biak nagusi

GIPUZKOAKO 1. MAILAKO TALDEAK 5-1 IRABAZI ZION LAZKAORI IPUZUA KIROLDEGIAN eta infantil mailako taldea Ernioperi nagusitu zitzaion Alkizan (1-8). Nagusiek denboraldiko partidurik onena jokatu zuten eta, atsedendira 3-1 aurretik heldu eta gero, erraz nagusitu ziren igoeratik hiru puntura zegoen Lazkao-



ren aurrean. Garaipen horrekin eibartarrak 6. sail-

katuarengandik hiru puntura daude. Infantil mailakoek ere partidu erraza izan zuten eta, Iñigok egindako partidu bikainarekin batera, Adrian Sampayo nabarmendu zen, lau golekin. Asteburuan atsedend hartuko dute; ez, ordea, kadete mailako taldeak, honek Orixe hartuko baitu bihar 11.30etan Unibertsitate Laboralean.

Julia Agirre nagusi karting-eko euskal txapelketan

OLABERRIAKO ZIRKUITUAN JOKATUTAKO EUSKADIKO TXAPELKETAKO KARTING MODALITATEKO 1. proban, Escudería Eibarko Julia Agirrek garaipena



lortu zuen bere debutean junior mailan (125 cc eta 30cv). Krono proban eta 1. mangan bigarren postuan sailkatu eta gero, 2. manga bereganatu zuen, itzuli azkarrera tarteko. Pista zegoen baldintza kaskarren eraginez, mekanika lan mordoia egin behar izan zuten. 35 punturekin, Agirre da liderra, Ander Gamón (21 puntu) eta Iñigo Bikuñaren (12) aurretik. Txapelketak azarora arte iraungo du eta bitartean beste hamasei proba jokatu behar dituzte, hurrengo Villarçayon (Burgos) martxoaren 20an.

Katu-Kalek irabazi eta Ruibalek galdu saskibaloian

LEHENENGO ITZULIKO AZKEN PARTIDUAN, KATU-KALEK BESTE GARAI-PEN BAT lortu zuen Ipuruan Zarautzen aurrean. Asko kostatu zitzaien saskiratzea talde biei: horren adibide, 1. laurdeneko emaitza (5-10 kostaldekoen alde). 9-21 ere joan ziren markagailuan, huts tarte bati esker, 17-21ean geratu zena atsedendaldirako. 3. laurdena 26-28 amaitu zen,



baina azken minutuetako 13-0koak garaipena eman zien eibartarrei.

Ruibalek, bestalde, gero eta zailago du jaitsierako postuetatik ihes egitea eta Donostiako Easo Zahar sailkapeneko 2. arekin 44-64 galdu zuen. Gero eta jardunaldi gutxiago geratzen dira amaierarako eta eibartarrek beharrezkoa dute erreakzionatzea.



Neskek bidea egiten hasi dira waterpoloan.

Waterpoloko herriko neska bi Hernaniko taldean

URBAT-EKO ESKOLAKO OSTAIZKA LOIOLAK ETA OHIANE ALBERDIK HERNANIREKIN DEBUTATU ZUTEN asteburuan Lautadaren aurka jokaturako Euskal Herriko 1. mailako partiduan. Horrez gain, Urvat-Urkatronik-eko senior taldeak zortzi partidu galdu barikeraman bidearekin amaitu zuen, Sestaon amoren emanen (10-6 bizkaitarrentzat). Emaitza horrekin, eibartarrak 3. postuan daude, Sestao liderrarengandik bost puntura, liga amaitzeko bost jardunaldiren faltan.

Arratek Osasuna B hartuko du bihar Ipuruan



ETB1-EK ESKAINIKO DU BIHAR ARRATSALDEAN IPURUAN JOKATUKO den Osasunaren bigarren taldearen eta Manixek zuzentzen duen taldearen aurkako partida. Norgehiagoka 16.00-etan hasiko da eta, partidu horretarako, Kijera atzelaria-

ren itzulera izan daiteke ha- maikakoan. Neurketa garrantzi handikoa da, nafarrek ere lau onenen artean sartzeko borrokan dihardute-eta. Atze alde horretan badago beste postu bat jokoan dagoena, Valín eta Espinen artean, Gañan eta Añibarrori laguntzeko.

Abentura eremuko eskia egiteko aukera

MARTXOAREN 26/27-RAKO ABENTURA EREMUKO IRTEERA didaktikorako ize- na emateko epea zabaldu dute. Federatuek 80 euro ordaindu beharko dute, Gipuzkoatik kanpo federatuek 85 eta ez federatuek 105. Mar- txoaren 15a baino lehen ize-

na emanez gero, %10eko deskontua izango dute. Abentura Neouviellen egingo da eta mendiko eskian mota eta zailtasun guztietako ibilbi- deak egiteko teknikak men- peratzea du helburu. Ikasta- roaren zuzendaria Poto Go- rrotxategi da (94-3427227).



Arrateren gestora buru-belarri lanean

ORAIN DELA HIRU ASTE OSATUTAKO GESTORAK HAINBAT URRATS EGIN DI- TU eskubaloi taldea aurrera ateratzeko ahaleaginean. Ho- rrela, diru-kontuak argitzeare- kin batera, lehen plantilarekin eta teknikari eta klubeko or- dezkariekin bildu dira, guztien aldetik *“elkarlanerako prestu- tasuna jasoz”*. Gazteen talde- etako gurasoekin ere bildu di- ra eta ehun bat gurasoren sostengua lortu dute; horrez gain, horko batzuk lan-taldean sartu dira. Aldi berean, ezagu- tzeraz eman dute bazkide ber- rien bila dabiltzala Ez-Ohiko Batzarrean estatutu berriak le- geztatze asmoz, *“horren on- doren Batzar Nagusian zuden- daritza talde berria osatzeko”*. Bidea egin dute ere Eibar FT

eta Realaren arteko partidua antolatzeko dirua jasotzeko as- moz eta Arrateren partidu bi- telebistaz eskaintzeko negoa- zioetan dabilta.

Herenegun jokaturako Aso- bal ligako partiduan, bestalde, Arratek erraz galdu zuen Leo- nen bertako Ademarrekin (33- 20), ordezkoi jokalariei jokatze- ko aukera emanez.



Udaberri torneoa gaur Astelenan

SENIOR MAILAKO PARTIDU POLITA IZANGO DA GAUR ASTE- LENAN Eibar eta Elgoibarko ordezkarien artean. Udaberri torne- o norgehiagoka da jokatu beharrekoa eta, Klub Deportiboaren bi- kotea osatuz, Unamunzaga eta Egañaren arteko zalantza dago aurreko koadroetan Bengoetxeari laguntzeko. Deba Arroko ligax- kan, Eibarko bikoteak erraz galdu zuen Elgoibarko ikastolan eta mendekua hartzeko gogoz egongo dira.

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

EGOITZA NAGUSIA
Albarrurieta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba
Tanatorio eta Errausketa labea
 Egoitza (Signo poligonoan)
 Partikular, multo eta osaguri etekin zerbitzuak
 Korak - Eskelak - Urtumarako eskelak
 Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen ditugu
 Nazio eta Nazioarteko traspasak

Mugica Ehorzketa
 (Funtzionarioak)

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU, euskaratik gaztelera, gaztelera euskarara, eta ingelese euskarara.

ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.com

Koko-eske eta koko-dantzen edizio berria egingo da bihar, goizean hasi eta iluntzera arte. Merkatu Plazatik abiatuta, baserrietatik pasa eta gero, herrian amaituko da jaia, oraingoan gainera Torredembarra dantzari kataluniarren parte hartzearekin. Herriko kalejira irekia egin nahi dute Kezkakoek, "edozein animatzen dela-eta ongietorria izango delako". Kezkakoekin batera, pastorets-ak, bastoners-ak, Jainagak, Narbaizak, Laskurain dultzainarekin, Mauxitxa txarangak... jardungo dute eta martxa berezia izango du biharko egunak, koko-marroen dantza berria estreinatuz.



Koko-dantzak ate joka

Bihar egingo dituzte, lau-
garren urtez jarraian, aur-
tengo koko-dantzak eta
koko-eskea Eibarren. Urteroko
moduan, goizean goizetik hasi-
ko dira koko-dantzari eta koko-
marruak baserriz baserriko
kuestazioan. Aurten gonbidatu
bereziak izango dituzte jai-
an, Kataluniatik -Torredembarra-
tik, hain zuzen ere- bastoners eta
pastorets taldeak izango baitu-
tugu aratuste-festan.

Aurreko urteetan Arrate-ba-
lle, Gorosta, Mandiola eta Agi-
na auzoetan barrena ibili ondoren,
aurten Otaola-Kinarra au-
zoan egingo da koko-eskea.
Hori bai, lehen agerraldia, goi-
zeko 8.30etan Merkatu Plazan
egingo da, ohi bezala, eta on-
doren hasiko da baserriz base-
rriko ibilbidea. Koko-eskea
egun osoz luzatuko da; eta
arratsaldean, 19.00etatik aurre-
ra, Eibarko erdiguneko kalee-

tan (Zuloagatarren,
Torbio Etxebarria,
Untzaga eta Kalbe-
ton kaleetan) ibiliko
dira koko-dantzariak,
Mauxitxa txarangak
lagunduta.

Gonbidatu bereziak

Kezka dantza tal-
deko koko-dantza-
riez gain, aurten
gonbidatu bereziak
izango dira koko-
dantzetan. Katalu-
niatik, Torredembe-
rrako Pastorets eta Bastoners-
ak izango dira Eibarren Koko-
egunean parte hartzen. Arrats-
aldean, koko-dantzariak kale-
etan egingo duten kalejiran par-
te hartuko dute Torredembarra-
koek. Pastorets-ak artzainen
dantza egiten dute, eta makil
handi batzuekin ezpata-dantza-
ren antzeko egiturak osatzen
dituzte. Bastoners-ek oster-
a, makila labur batzuk erabiltzen
dituzte, koko-dantzariak beza-
latsu, eta elkar-kolpatuz eta le-
kuz aldatuz figura ikusgarriak
osatzen dituzte.



Koko-marruen soka-dantza

Arratsaldean Eibarko kalee-
tan egingo duten kalejiran, dan-
tza berri bat estreinatzeko au-
kera izango da: koko-marruen
soka-dantza. Sabin Bikandiren
musika eta Patxi Labordaren
koreografiatik abiatuta presta-
tutako dantza da.

Hamar koko-marruk dantza-
tuko dute soka-dantza berezi
hori: Koko-buruzagixa, Batista
kojua, Arraguetako Ama Birjina,
Kattalin, Manuela, Don Euse-
bio, Maria, Petra, Hartza eta
Martin Perratzailiak.



Oraingoan baserri gutxiago bisitatuko badituzte ere, bide luzea egin beharko dute.

BIHARKO EGUTEGIA

08.30etan

Merkatu plazan

9.00 – 16.00

Otaola-Kiñarrako
baserrietan

19.00 – 21.00

Koko-dantzak,
Pastorets-ak
eta Bastoners-ak
Anbulategi parketik,
T. Etxebarria, Untzaga
eta Calbetón-era.



Laugarrena, ziklo olinpikoa

Koko-dantzen inauteria
2008-an jarri zuen martxan

Koko-eskea Otaola-Kiñarra bailaran

AURTEN KOKO-DANTZARIAK eta koko-marruak Otaola-Kiñarra bailaran ibiliko dira koko-eskean. Ohi bezala, lehen agerraldia goizeko 8:30etan Merkatu Plazan egingo dute. Ondoren, Azitainera jo eta handik hasiko dute baserrietako bidea. Sautxi, Txonta, Urki eta Ipurua gainean ere ibiliko dira.

Loixola, Eguren, Ixkua, Txopen, Irargorri, Ipurua, Mertxete, Iraegi-erdikua, Iraegi, Areta, Areta-abeletxe, Lekamendi, Kantina, Altamira-bekoa, Urkidi-

Torredembarrako pastorets-ak eta bastoners-ak Eibarren

ASTE BURU HONETAN Torredembarrako bi dantza talde izango ditugu Eibarren eta, koko-dantzen kalejiran, Kezka Dantza Taldekoekin batera parte hartu eta dantzatuko dute. Katalunian dagoen Tarragonako kostaldeko herria da Torredembarra, jai, musika eta dantza ospakizun biziak dituena. Joan den uztailan bertan izan ziren Kezkakoak Arrateko dantzak eskaintzen eta, euren dantzak ikusi ondoren, Eibarren ere erakusteko gogoia piztu zitzaizen Eibarko dantzarietara eta horregatik gonbidatu dituzte.

Artzainak dantzan

Pastorets-ak "artzainak" dira eta artzain erako jantziekin dantza egiten dute. Makil luze batzuk erabiltzen dituzte eta elkarri kolpatuz dantzatzeko dute. Baina, ondoren, makilak elkarri eman, taldea "lotu" eta ezpata-dantzetan oso ezagunak diren egiturak osatzen dituzte: ganbarak, arrosak eta parrillak. Dantzarien buruzagia (majoral izenekoa) parrilla gainera igo eta "biba" zenbait oihukatzen ditu.

Beraz, lehen tankeran "Inude eta Artzaien" tankerako itxura hartu arren, ondoren ezpata-dantzen ohiko egitura koreografiak nabarmentzen dira pastorets-en dantzetan. Artzainen

dantza horien erreferentzia zaharrenak XVII. mendean aurkitu dituzte Katalunian. Torredembarran 1849koa da ezagutzen duten erreferentzia zaharrena, Mañe i Flaquer kazetari ezagunak aipatzen baitu, Santa Rosalia jaietako osagai gisa.

Torredembarrako Ball de Pastorets-a 2000. urtean berreskuratu zuten, berriz ere Santa Rosaliaren jaietarako.

Makila-dantzariak

Bastonersak makila-dantzariak dira eta, ezagunenez, makila-dantzak ball de bastons delakoak dantzatzeko dute. Katalunian tradizio handikoak dira makila-dantzari talde horiek, eta Torredembarran 1853-koa da horrelako talde baten inguruan aurkitu den lehen aipamena.

Zortzi dantzari aritzen dira makila-jokoak eginen, eta buruzagi batek gidatzen ditu. Hain zuzen ere, koko-dantzetan (eta beste hainbat euskal dantzetan) aritzen diren modu berezuan. Hori guztia kontuan hartuta, inauterietan Eibarkoekin batera dantzara kaleratzeko oso talde egokiak zirela iruditu zitzaizen Kezka Dantza Taldekoek eta gonbidapena egin zieten Torredembarrakoek.

Kezka dantza taldeak, arastuteak ospatzeko molde tradizionalean oinarrituta, eta konpartsan parte hartzen duten pertsonaia guztiak arketipo zaharretan inspiratutakoak dira, nahiz eta Eibarko ezaugarri

propioak dituzten. Makila-dantza egiten dute koko-dantzariak, eta haien inguruan jira-biran eta zalapartaka aritzen dira mamarru, burburixoa, masusta eta bestelako koko-marruak. Baserrietan eta kalean koko-

dantza egiten dute, fox-trota, makila-dantza eta arin-arina biltzen dituen dantza, eta aurtan, lehen esan moduan, arratsaldeko kalejiran dantza berri bat estreinatuko dute.

Eibarren 100 baserrietik gora daude eta zaila ikusten zen denak urte batean bisitatzea. Horrela, urtero ingurune bat egiten joan dira; horrela, urte batean 30 baserri egin zuten, eta besteren batean 20, eta aurtan ere 20 inguru dituzte aurreikusita. Horiekin, lau urteotan, buelta osoa osatuko dute eta datorren urtean, berriz ere hasieratik, ziklo olinpikoa hasteko moduan izango dira.

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

Domekan, arratsaldeko 19.00etatik aurrera, "Velada con punkpoetas, entre café y porretas" ikuskizuna eskainiko dute Jose Antonio Muñoz eta Markos Gimeno Ermuko olerkariak Karrika tabernan. Poeta berezien olerkiak errezitatuko dituzte, ikusleei barre egiteko tartea eskainiz.



JOSE ANTONIO MUÑOZ, olerkaria:

"80. hamarkadako poetak aldarrikatu nahi ditugu"

- Zer eskainiko diozue ikuslari domekako ikuskizunean?

Poesia errezitala izango da, errezital berezia. Izan ere, 80. hamarkadako hainbat musikataldere letrak errezitatuko ditugu: Evaristo, La Polla Records, Cicatriz, Eskorbuto, RIP... Poeta moduan aldarrikatuko ditugu, poetak direlako. Ikuskizun berria, sinpatikoa eta komikoa eskaintzen dugu. Horrez gain, ikuskizunari dinamismoa emateko, beste hainbat gauza tartekatuko ditugu, adibidez, hitz jokoa, esnahi bikoitzeko esaldiak, "mondegreen-ak" (abestibaten letrak aldatzea)... Jendeak ondo pasatuko du.

- Zelan bururatu zitzaizuen horrelako zerbait egitea?

Hasiera batean lagunarteko zeozer moduan sortu zen. Ermuko Eskillarapekok 5 urte betetzen zituela-eta, zerbait antolatzeke eskatu ziguten, lagunuen aurrean egiteko zeozer. Eta hau egitea bururatu zitzaigun, gure olerkariak aldarrikatzeko modu bat zelako. Gainera muntaia berezirik ez du behar: letrak idatzita daude, ez dugu olerkirik geuk ida-


tzi behar, letra guztiak buruz dakizkigu... Erraz antolatzeke moduko zeozer da.

- Zelan erantzun du jendeak orain arte?

Uste baino askoz ere hobeto. Lehenengo bider egin genuenean ez zen jende asko gerturatu. Ez genien esan zein eratako ikuskizuna izango zen eta jendeak uste zuen Lorca bezalako poeten olerkiak errezitatuko genituela, eta horrek ez zuen jendea asko animatu. Baina olerkiak entzun zituztenean pozarren hartu zituzten, jendeak barre asko egin zuen. Gero ahoz-aho ibili da eta domekakoa laugarren saioa izango dugu.

- Nondik datorkizu zaletasun hau?

Egia esan ni ez naiz honetara dedikatzen, eta ez dut inoiz horrelako ezer egin. Markosek bai, antzerkia, musika, pintura... jorratu ditu eta alor horretan segitzen du, baina nik ez. Aspalditik gara lagunak eta "pailazokeriak" egitea gustatzen zaigunez, Markosek animatu ninduen horrelako zerbait egitera eta egiten jarraitzea.





Froufe bakarlariaren kontzertua

GAUR GAUEAN, 23.00-ETATIK AURRERA, SAN JUAN KALEKO ALDATZ TABERNAN kontzertua eskainiko du Froufe bakarlariak. Zain eta Xarma taldeeko batera-jolea den Josuah Froufe berriarrak talde horietako jarduna bere bakarkako proiektuarekin tartekatzen du eta beste hainbaten bertsioak ez ezik, berak idatzitako abestiak ere badauzka bere erreperitorioan.

Irigoien argazki erakusketa Hondarribian

JOSE LUIS IRIGOIENEN "EGIPTO" ARGAZKI ERAKUSKETA

otsailaren 21ean inauguratu zen, Hondarribiko Modotti tailerlean (Kale Nagusia, 28.). Martxoaren 13ra arte ikusgai egongo den erakusketa honako ordutegian egongo da zabalik: lanegunetan, 17.30etatik 20.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 11.00etatik 14.00etara.



La Salle Azitaingo ikasleak eskalada ikasten


LA SALLE AZITAINGO 2. DBH-KO IKASLEAK ESKALADA IKASTAROA egiten eta bertan ikasitakoa praktikan ipintzen ibili dira Elgoibarren otsailaren 9an eta 16an. Irakasleen berbetan, "eskaltzeko teknikak eta berau segurtasunez egiteko behar diren materialak ezagutzeaz gain, elkarrekin goiz zoragarria pasatzeko aukera ere izan zuten ikasleek".

Dena prest Aratosteetarako


EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN ARATOSTEETARAKO EGITARAUA PORTALEAN. Datorren astean ospatuko da Eguen Zuri, baina aurretik, bihar Kezka dantza taldeak koko-dantzak eta koko-eskea egingo ditu. Eguen Zurian 15.30etan hasiko dira ikaste-txeetako kalejirak: La Salle eta Juan Antonio Mogel ikastolokak Untzagatik abiatuko dira eta gainontzekoak ikastetxe inguruan, auzoan ibiliko dira. Horrez gain, 17.00etatik aurrera Untzagan hainbat tailer egongo dira martxan Astixaren eskutik, Lisker taldearen kontzertuarekin batera. Barixaku Erregularran Kaldereroen kalejira izango da protagonista nagusia (bezperan entsegu irekia egingo da Portalean, 20.30etan)

eta hurrengo egunetan jaiak jarraituko du, baina horren berri hurrengo alean emango dugu.

Bestalde, Udalak "Aratostee-tan dotoreen jarritako taberna" lehiaketa antolatu du, Aratostee-tan taberna apaintzen duen Eibarko edozein tabernarrentzat. Izena emateko epea martxoaren 3an, 19.30etan amaituko da eta parte hartu nahi dutenek aipatutako epea amaitu aurretik Pegorara bertara joanda edo 010 telefonora deituta eman beharko dute izena, horrekin batera aukeratu duten dekorazio-gaia zein den adierazita. Eta horrez gain, pella eta torrada lehiaketa ere antolatu ditu Udalak: parte hartu nahi dutenek etxean egin beharko dituzte pellak zein torrada eta martxoaren 6an, 12.00etatik



12.30etara gutxienez lau zati aurkeztu beharko dituzte Untzagan, izen-abizenak eta NAN zenbakiarekin batera. Lehenak 90 euro eta garaikurra eskuratuko ditu, bigarrenak 60 euro eta garaikurra eta hirugarrenak 30 euro eta garaikurra.



Atzegiren 50 urteak Untzagan ikusgai

MARTXOAREN 3-RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI "Adimen urritasunaren garapena Atzegiren 50 urteetan" izenburuko erakusketa, Untzagako jubilatuen etxean (astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara). Erakusketan Atzegiren ibilbideari errepaso ematen lagungarri diren hainbat kartel ipini dituzte ikusgai, tartean 2010ekoa: "Kartel horren mezuak abiapuntua izan nahi du imajinatzen segitu beharra dagoen etorkizun horretarako".



II. Udaberriko kontzertua

DOMEKAN CIELITO MUSIKA BANDAK 12.30-ETATIK AURRERA Coliseoan emango duen II. Udaberri Kontzertuarekin batera ekingo diote txirringularitza denboraldiari aurten 85 urte beteko dituen Eibarko Txirringularien Elkartekoek. Straussen polka tradizionalarekin batera, Carlos Sánchez Barba zuzendariak sortu duen "Txirringularien Txirrinak" polka estreinekoz entzuteko aukera izango du publikoak.

laburrak

VOCES Y CUERDAS BIHAR

Zapatuan, 19.00etatik aurrera Voces y Cuerdas laukoteak kontzertua emango du Coliseoan (6 euro). Vicente Ramirez, Alberto Alberdi, Aitor Errasti eta Asun Anguerak osatzen duten taldearen erreperatorioan bolero eta rantxera ezagunak daude eta biharko emanaldian Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako gazte biren laguntza izango dute. Kontzertua diskoa grabatzeko aprobeztatuko dute.

EGO-IBAR ZINE KLUBA

Martxoan ere zine kluba eskainiko du Ego Ibarrek, lehenengo aste bietan: martxoaren 3an "Un tipo serio" (Zuz: Coen anaiak) eta martxoaren 10ean "Cartas al padre Jacob" (Zuz: Klaus Härö) ikusteko aukera izango da Hezkuntza Esparruan, 17.30etan eta 21.00etan (sarrerak euro bi balio du).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

Datorren astean, martxoaren 2an hasiko da Eibarko XXXIV. Nazioarteko Antzerki Jardunaldiak, 17.00etatik aurrera Untzaga eta Torbio Etxebarria kalean egingo den Giza Irudien IX. Erakustaldiarekin. Bestela, irekiera hitzaldia martxoaren 10ean emango du Juan Diegok (19.00etan Coliseoan).

JUAN OSÉS BIENZOBAS

(2011ko otsailaren 17an hil zen, 82 urterekin)

SENIDEEN IZENEAN

ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



Ipuin kontalaria eta tailerra

MARTITZENEAN AZALDU ZITUZTEN JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK datozen egunotan hartuko dituen hainbat jardura, iazko urteko memorian jasotako hainbat datu estatistikorekin batera. Kutxako diru-laguntzari esker antolatutako ipuin-kontalari saioak honezkeroko finkatutako programazioaren parte dira eta, martxa horretan, asteburu honetan Zapatuko Ipuina ekimenaren barruan Eñaut Gorbea ipuin kontalariak 50 bat minutuko saioa eskainiko du umeen liburutegian, 4-8 urte bitarteko haurrentzat.

Lapikotxiki tailerra

Horrez gain, orain egun batzuk argitara eman zen "Lapikotxiki, kantuz kulunka-



Umeen liburutegian aurkeztu zituzten jardunak. / SILBIA HERNANDEZ

tzen" liburu-DVDaren egilea den Estibalitz Gonzalezek bi zapatu goizetan (martxoaren 19an eta 26an, 10.00etatik 12.00etara) Portalean bertan horren inguruko tailerra emango du 0-3 urte bitarteko umeen gurasoentzat. Argitara emandako abestien batera, lanean jaso ez dituen beste batzuk ere lantzeko asmoa duela aurreratu

du Gonzalezek eta, ikastaroa euskeraz izango bada ere, landuko diren abestiak nahiko oinarritzkoak direnez parte hartzeko euskera maila handirik behar ez dela azpimarratu dute antolatzailleek. Interesa dutenek martxoaren 13ra arte izango dute izena-emateko aukera liburutegian bertan (5 euro).

UEUren udaberriko ikastaroak

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK UDABERRIRAKO IKASTARO ESKAINTZA AURKEZTU DU. Hilabete honetan bertan hasita eta datozen asteotan, Markeskua jauregian 8 ikastaro emango dituzte: "Moodle 2.0-ren oinarriko erabilera", "Interneten baliabideak erabiltzen ikasi", "Argazkigintza dokumentala", "Co-

aching pertsonala", "Estres psikofisikoa nola gainditu", "Haurtzaroa, oinarri sendoekin", "Portaera arazoak kudeatzeko teknikak" eta "Basoaren sekretuak ikertuz". Ikastaro bakoitzaren inguruko informazio zehatza www.ueu.org helbidean aurkituko duzue eta izen-ematea ere bertan egin daiteke. Bestalde, gogoan izan Udalak



diru-laguntzak emango dizkiela ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrei (eskaerak Pegoran egin behar dira).

Ileapaindegi ikastaroa martxan

LEHENENGO SAIO BIAK ASTE HONETAN EGIN DITUZTE (martitzen eta egue-nean) eta hamabost egun barru izango dira gainontzeko biak (martxoak 8 eta 10). Olaia irakaslearen eskutik parte hartzaileek ilearekin lotutako hainbat gauza ikasten dihardute, hala nola, ilea nola sikatu, plantzak nola erabili, flekilloa nola moztu, ilerako produktuak nola erabili... Jendeak pozarren jardun zuen lehen saioetan.



Harixa Emoten martxoan

MARTXOAREN 22-AN IZANGO DU HURRENGO ZITA LITERATUR TAILERRAK. Oraingoan Arantxa Urretabizkaiaren 3 Mariak liburua aukeratu dute eta horren inguruko tertulia-tailerra egingo dute parte-hartzaileek, Antxon Narbaizaren laguntzarekin.


Arratsaldeko 19.00etan izango da ...eta kitto!-n bertan (Urkizu 11, solairuareta). Taldean izena emateko euskarazko liburuak irakurtzea gustoko izatea da baldintza bakarra. Parte hartzeko deitu 943200918 telefonora edo ...eta kitto!-tik pasatu.

EUSKARAREN

EUSKARAZKO ANTZERKIAREN BEHERAKADA 2010. URTEAN.


Euskarazko antzerkiak egundoko beherakada izan du 2010ean: %60 jaitsi dira emanaldiak antzoki publikoetan eta, sektoreko profesionalen ustez, arazoa ez da publiko falta, kontratazioari eusteko borondate politikorik ez izatea baino. 2009an 334 emanaldi eskaini baziren, 53.497 ikuslerekin, 2010ean 135 emanaldi eskaini dira bakarrik eta ikusleak 18.935 izan dira. Alderantzizko joera izan zen XXI. mendean sartzearrekin bat: horrela, 2000. urtean 258 emanaldi eta 53.018 ikusle izan baziren, 2007ra arte geratu gabeko igoera izan zuen euskal antzerkiak, azken urte horretan 447 emanaldi eskainita eta 87.520 ikusleren presentziarekin. Azkeneko hiruzpalau urteetan galdutokari buelta emateko hamar bat urte beharko direla pentsatzen dute euskal konpainiakok *"lehenengo egoerara itzultzeko, aurrekontuak berreskuratuzko eta formatu handiko ikuskizunak egin ahal izateko; orain ezin da arriskatu"*.

TXOKOA




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRENE, astelehenian sei urte beteko dozulako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, UNAITXO, gaur urtia betetzen dozulako. Muxu haundi-haundi bat zure gurasuen partez.




Zorionak, MAIALEN, domekan sei urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, UNAI, bixar urte bi egingo dozulako. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, JOKIN, astelehenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundixa aitta, ama eta Unaxen partez.




Zorionak, ENEKO, gure sugandilla txikixa. Muxu haundi bat ama, aitta eta Egoiren partez.



Zorionak, EKI, martxuaren 1ian urte bi beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, IRATI, astelehenian urte bi egingo dozulako. Laztan potolo bat.



Zorionak, NAROA, urtiak egin dozuz-eta. Asko maitte zaittugu. Famelixaren partez.

HILDAKOAK

- Ander Bolunburu Eguren. 24 urte. 2011-II-15.
- Juan Osés Bienzobas. 82 urte. 2011-II-17.
- Teresa Apaolaza Agirre. 61 urte. 2011-II-18.
- Gabriel Elizondo Retolaza. 78 urte. 2011-II-19.
- Asuncion Kortabarría Agirre. 104 urte. 2011-II-20.
- Maria Robles Boada. 95 urte. 2011-II-21.
- Antonio Zubiaurre Jauregi. 78 urte. 2011-II-21.

JAIOTAKOAK

- Gorka Atxa Cid. 2011-II-17.

zinea Coliseoan

25ean: 22.30
26an: 19.30/22.30
27an: 17.00/20.00
28an: 20.30

"Poesía"

Zuzendaria: **Changdong Lee**
 Aktoreak: **Dawit Lee, Yongtaek Kim, Jeonghee Yon, Lee Jongho**



Gyeonggi probintziako hiri txikian bizi da Mija, bere bilobarekin. Emakume zabala da, kuriositatez bete eta bere irudia zaintzen duena. Poesia ikastaro batean parte hartu eta bat idaztera animatuko da. Bizitza inoiz baino ederragoa dirudienean ezustea dator.

25ean: 22.30
26an: 22.30
27an: 17.00

"Morning Glory"

Zuzendaria: **Roger Michell**
 Aktoreak: **Rachel McAdams, Harrison Ford, Matt Malloy, Diane Keaton**



Becky-k berriak ematen dituen programa bateko produktorea izan nahi du eta, goizeko akatsdun magazinea salbatzeko, aurkezleen gaineko kontrola ezarri nahiko du. Horretarako, sasoi batean ospetsua izandako kazetaria kontratatuko du.

26an: 19.30
27an: 20.00
28an: 20.30

"También la lluvia"

Zuzendaria: **Iciar Bollain**
 Aktoreak: **Raul Arévalo, Gael G^o Bernal, Luis Tosar, Karra Elejalde**



Lagun bi daude Bolivian pelikula bat filmatzen: Sebastian zuzendariak benetan gertatutakoa kontatu nahi du eta Costa produktoreak filma amaitzea besterik ez du nahi. Tarte horretan Uraren Gerra hasten da, herritarren iraultza pizten duena.

"La montaña mágica"

27an: 17.00

25ean: 22.30
26an: 22.30
27an: 20.00
28an: 20.30

"Cisne negro"

Zuzendaria: **Darren Aronofsky**
 Pertsonaiak: **Mila Kunis, Natalie Portman, Christophe Gartin, Winona Ryder**



Bi ballet dantzariren arteko lehia gero eta gogorrago gorenera iritsiko da ikuskizun handia gerturatzen doan neurrian. Arazoa da ingurukoek ez dakitela dantzari aurkaria naturaz gairako agerraldia den edo protagonistaren burutazio bat.

horoskopoa

ARIES

Zu, zu, zu eta ondoren zu. Ez al dakizu besteak ere existitzen direla? Zure buruan baino ez duzu pentsatzen. Ez izan egozentrikoa.

TAURUS

Tauruuuus! Esnatu! Non zaude? Non duzu burua? Zure pentsamenduetan ematen duzu egun osoa. Zerbaitek kezkatzen bazaitu, lagunen bati esan.

GEMINI

Egun osoa kexatzen eta purrustadaka pasatzen duzu. Nahikoa da! Hasi zaitetz gauzen alde onak ikusten, zoriotsuagoa izango zara-eta.

CANCER

Koadrilan klonikoak ematen duzue. Denak orrazkera, zapatilla eta janzkera berarekin! Norbere izakeraren marka izatea hobe da.

LEO

Animaliak asko gustatzen zaizkizula badakit, baina hortik kalean topatzen dituzun sugandila eta mamorro guztiak etxera eramatea...

VIRGO

Poker aurpegia ipintzen ikasi beharko zenuke. Berehala igartzen zaizu zer pentsatzen duzun eta hori, batzuetan, zure kalterako izaten da.

LIBRA

Asteburu honetan nahi beste ligatuko duzu. Inoiz baino erakargarriagoa egongo zara eta aukera handiak izango dituzu.

SCORPIUS

Zortea zure alde izango duzu eta espero ez duzun dirutxoia ere etorriko zaizu. Zamarretako poltsikoetan begiratu ondo!

SAGITTARIUS

Ikasketak alde batera lagata dituzu. Noiztik ez duzu liburu bat zabaldu? Azterketa sasoiari damutuko zara. Hasi ikasten, berandu baino lehen!

CAPRICORNIUS

Aurreko asteburuan ezagutu zenuen lagun horrekin topo egin eta txinpartak irtengo dira. Zuen artean kimika izugarria dago!

AQUARIUS

Gauzak aurpegira esatea gustatzen zaizu, baina batzuetan zakarregia zara eta, zure asmoa minik ematea ez bada ere, mingarria izan zaitezke.

PISCIS

Zure urtebetetzea ospatzeko parranda izugarria izango da; lagun asko dituzun seinale. Horrela jarraitu; bide onean zaude.

Barixakua 25

KONTZERTUA

23.00.- Froufe bakarlariaren kontzertua. Aldatz tabernan (San Juan, 3).

Zapatua 26

KOKO-ESKEA

08.30.- Koko-eske eta koko-dantzen hasiera, Merkatu plazan (Bidebarrietan).
09.00/16.00.- Otaola-Kiñarrako baserrietan ibiliko dira.
19.00/21.00.- Koko-dantzak, Pastorets-ak eta Bastoners-ak Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga eta Calbeton-en.

SAHARAREN ALDEKO AZOKA

11.30/20.00.- Bigarren eskuko liburu azoka, Saharako familiei laguntzeko dirua batzeko. Antolatzailea: Saharautz Elkartea. Untzagan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- Eñaut Gorbea ipuin-kontalariaren saioa: "Hala bazan edo ez bazan...". Umeen liburutegian.

KONTZERTUA

19.00.- Voces y Cuerdas taldearen emanaldia. Sarrera: 6 euro. Coliseo antzokian.

Domeka 27

ERIZ MAGOA

11.30.- Eriz magoaren ikuskizuna, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Portalean. Gurasoak Berbetan-eko kide eta ...eta kitto!-ko bazkideentzat.

SAHARAREN ALDEKO AZOKA

11.30/15.00.- Bigarren eskuko liburu azoka, Saharako familiei laguntzeko dirua batzeko. Antolatzailea: Saharautz Elkartea. Untzagan.

II. UDABERRI KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren II. Udaberriko Kontzertua. Coliseoan.

POESIA EMANALDIA

19.00.- "Velada con punkpoetas, entre café y con porretas", Jose Antonio Muñoz eta Markos Gimeno Vesgarekin. Karrika tabernan.

Martitzena 1

IKASTEN

10.00.- "Nanociencia e innovación", Juan Luis Ibarluzearen eskutik. Armeria Eskolan.

TXAPELKETA

16.30.- Tute eta mus txapelketak. Beheko Tokia jubilatuen etxean.

ENTSEGUA

19.45.- San Andres parrokiako abesbatzaren entsegua. San Andres elizan.

Eguaztena 2

IKASTEN

11.00.- "Kafe-tertuia: Copago de la sanidad". Depor tabernan.

TXAPELKETA

12.00.- Toka eta igel-toka txapelketak. Beheko Tokia jubilatuen etxean.

GIZA IRUDIAK

17.00.- IX. Giza Irudien erakustaldia. Untzagan eta T. Etxebarrian.

Eguena 3

IKASTEN

10.00.- "Composición y funciones de los comités de bioética", Mabel Marijuanen eskutik. Armeria Eskolan.

EGUEN ZURI

15.30.- Ikastetxeetako kalejirak.
17.00.- Erraldoi eta buruhandien kalejira. Urkizutik Untzagara.
17.00.- Dantzaldia Lisker taldearekin. Tailerrak Astixarekin. Untzagan.

TXAPELKETA

16.30.- Briska txapelketa. Beheko Tokia jubilatuen etxean.

KALDEREROETARAKO ENTSEGUA

20.30.- Aratoste Barixakuan (martxoaren 4an) Kaldereroen konpartsan parte hartu nahi dutenentzat entsegu irekia. Portalean (3. pisuan).


SUDOKUA

7			4				
3		8	2	6		5	
6	1						
	3	6			5		
	5					7	
			1			9	2
						8	1
		1		9	4	7	6
				7			2

DENBORAPASAK

3	6	4	2	7	8	9	1	5
9	8	8	3	1	4	6	2	7
1	2	7	6	9	5	3	8	4
6	9	3	4	2	7	8	5	1
7	1	5	9	8	3	4	6	2
8	4	2	1	5	6	7	9	3
2	7	1	5	4	9	6	3	8
4	3	9	8	6	1	2	7	5
6	8	6	7	3	2	1	4	9

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

- Otsailaren 28ra arte
PEIO AGIRRE-ren argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*
- ALEJANDRO MARTÍNEZ ACIN**-en argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en "India" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- RAFA HERRERO**-ren "Paisajes mínimos" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- Martxoaren 3ra arte
ADIMEN URRITASUNAREN GARAPENA ATZEGIREN 50 URTEETAN erakusketa. *Untzagako jubilatuen etxean.*
- Martxoaren 6ra arte
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA-ren erakusketa kolektiboa. *Ermuko Lobiano Jauregian.*
- Martxoaren 13ra arte
IZASKUN ALVAREZ-GAINZA-ren "Graphique et couleur" erakusketa. *Portalean.*
- ROSA M^a VALBUENA**-ren *margo* erakusketa. *Portalean.*
- JOSE LUIS IRIGOIEN**-en "Egipto" argazki erakusketa. *Modotti tailerrean* (Kale Nagusia, 28. Hondarribia) Ordutegia: lanegunetan 17.30etatik 20.00etara eta zapatu eta jai-egunetan 11.00etatik 14.00etara.

ikastaroak

- **Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa.** Non eta noiz: *Martxoaren 5etik 26ra*, 09.00etatik 13.30etara eta 15.30etatik 19.30etara. DYako ordezkaritzan (Pagaegi, 5). Informazioa: www.dyagipuzkoa.com edo 943464622 (100 euro).
- **"Lapiko, kantuz kulunkatzen".** Noiz: *Martxoaren 19an eta 26an*, 10.00etatik 12.00etara Portalean (Haur liburutegian). Informazioa eta izen-ematea: Martxoaren 13ra arte. Portalean, Udal Liburutegian (5 euro).
- **UEUko udaberriko ikastaroak.** Informazioa eta izen-ematea: www.ueu.org helbidean.

farmaziak

- 25, barixakua**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 26, zapatua**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
- 27, domeka**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 28, astelehena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 1, martitzena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
- 2, eguaztena**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 3, eguena**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 4, barixakua**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

lehiaketak

- **Aratosteetan dotoreen jarritako taberna.** Izen-ematea eta informazioa: *Martxoaren 3ko 19.30ak baino lehen*, Pegoran edo 010 telefonoan.
- **Pella eta torrada lehiaketa.** Noiz: *Martxoaren 6an*, 12.00etatik 12.30etara. Untzagan.
- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.** Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia.
- **Esaera zaharren lehiaketa.** Botoa emateko: *Martxoaren 11ra arte*, www.eibarko-euskara.com webgunean.

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Duplexa salgai Eibarko erdialdean (Jata). 80 m². Logela eta komun bina. Estrenatzeko eta kapritxora jantzita. Igozailua ateraino. Bizitzera sartzeko moduan. Garaje bat edo bi, aukeran. 280.000 euro. Aukera ezinhobea. Tel. 608-171719.

– Pisua salgai Urkizun. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Igozailua. Bizitzera sartzeko moduan. 205.000 euro. Tel. 649-441825.

– Pisua salgai Juan Gisasola 5ean (4. A). Sukaldea, hiru gela, egongela, komuna eta despentsa. Igozailua eta fatxada berriztuak. Tel. 605-838562.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren (2-3 logelakoa). Tel. 651-733446.

– Etxea alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Tel. 660-378181.

– Logela alokagai Saratsuegi kalean. Tel. 650-917491.

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

3. Lokalak

2.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

– Estetika negozioa traspasatzen da. Lanean hasteko moduan. Tel. 657-793584.

– Lokal komertziala alokagai Sostoaarren 17an. 18 m². Tel. 669-276773.

– Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m². Komuna eta barrarekin. 18 urtetik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 696-246962.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 680-326355.

– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko. Esperientzia saltzaile eta dendari moduan. Tel. 690-113659.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 646-506777.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 699-813826.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko etabar. Tel. 620-853295.

– Neska eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-406751.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-249775.

– Neska eskaintzen da nagusiak (etxean edo ospitalean) edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 688-884746.

– Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 638-296383.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: tabernak, bulegoak, tailerak... Tel. 603-800159 eta 617-633207.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, ileapaintzaile profesional moduan eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 652-585259 eta 655-132769.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta finka bateko zaintzaile moduan. Tel. 655-132769 eta 652-585259.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 605-129530.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, nagusiak paseatzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 685-765340.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-029329 eta 671-329852.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 671-109181.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 655-384877.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 669-688755.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 649-008036.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 606-226827.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-625733.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 943-621109.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-421933.

– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-531218 eta 699-653874.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-068463.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 635-355168.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 657-345279.

– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 636-383471.

– Mutila eskaintzen da garraiolari edo gidari jarduteko. Karnet guztiak, baita motorrarena ere. Tel. 674-849146.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo paseatzeko. Tel. 628-014327.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 608-886701.

– Mutila eskaintzen da furgoneta-ekin banatzaile jarduteko eta enpresak garbitzeko. Tel. 650-513412.

– Emakumea eskaintzen da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko (sukaldari laguntzaile jardun, umeak zaintzeko) 15.30etatik aurrera. Tel. 616-397348.

4.2. Eskaintzak

– Neska behar da asteburuetan jabetxe bateko sukaldean lan egiteko. Tel. 943-121262.

– Lagun bat behar da zapatu goizetan ileapaindegian makillajeak egiteko. Tel. 943-254512.

– Ileapaintzaile behar da. Esperientziarekin. Tel. 665-708825.

– Ileapaintzaile (1^oko ofiziala) behar da Eibarko ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254512.

– Kamarera behar da autoarekin. Extra moduan. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Ingenieritza Informatikako 3. mailako ikasleak "Datuen estrukturak eta algoritmoak 2" ikasgaiko klase partikularrak ematen dituen irakaslea behar du. Tel. 619-163031.

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira, ume eta helduentzat. Tel. 645-488483.

6. Denetarik


6.1. Salgai

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Erremolke salgai (300 kg-rako). Egoera onean eta merkea. Tel. 639-933281.

6.2. Eman

– Hilabete biko txakurkumeak oparitzen ditut. Tel. 678-323837.



UNIVERSITY OF CAMBRIDGE ESOL Examinations

CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438

AZTERKETAK ETA DATAK:

STARTERS (azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 28
MOVERS (azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 28
FLYERS (azterketa osoa)	LARUNBATA	Maiatzak 28
<hr/>		
K.E.T. (Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak 4
(Speaking)	LARUNBATA	Maiatzak 28
P.E.T. (Papers 1,2,3)	LARUNBATA	Ekainak 4
(Speaking)	LARUNBATA	Maiatzak 28
F.C.E. (Papers 1,2,3,4)	LARUNBATA	Ekainak 11
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4
C.A.E. (Papers 1,2,3,4)	ASTEAZKENA	Ekainak 15
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4
C.P.E. (Papers 1,2,3,4)	OSTEGUNA	Ekainak 16
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4
<hr/>		
B.E.C. Preliminary	ASTEAZKENA	Ekainak 8
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4
B.E.C. Vantage	OSTEGUNA	Ekainak 9
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4
B.E.C. Higher	ASTEARTEA	Ekainak 7
(Speaking)	LARUNBATA	Ekainak 4

EKAINEKO DEIALDIA
AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON
MATRIKULAK: Martxoaren 1etik 10era

INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:


<u>ARRASATE:</u>	Parlance	943 77 06 83
	Mondragon Lingua	943 71 20 55
<u>BERGARA:</u>	Espolon School of English	943 76 03 53
<u>EIBAR:</u>	Anglo-American	943 20 64 57
	Link Idiomas	943 20 39 59
<u>ERMUA:</u>	Akerlei	943 17 66 32
<u>ELGOIBAR:</u>	Kensington School of English	943 74 02 36
	Key Academia de Inglés	943 74 30 44
<u>OÑATI:</u>	Mondragon Lingua	943 71 60 00
<u>DEBA:</u>	Akabi	606 80 00 66
<u>DURANGO:</u>	San Jose Maristak	94 681 00 58
<u>MENDARO:</u>	Akabi	606 80 00 66
<u>BERRIZ:</u>	Speak up	94 622 52 94
<u>ZUMAIA:</u>	Golden Gate	943 86 50 20
<u>MUTRIKU:</u>	Gogoz	943 60 43 58

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelertik
euskarara,
eta ingelestik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com

ste.

GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.

Proiektuak eta Aholkularitza Teknikoa
EIT-en (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa) erredakzioa
Eraginkortasun energetikoaren azterketak eraikinean


PROMOZIOAK
INDUSTRIA INSTALAZIOAK
KOMUNITATEAK
ETXEBIZITZAK

943 700 150  tel. 610 718 244

8 etxebizitza **63** garaje **17** trastero

 edificio **aldatze²**

Aukera
ezinhobea



Garajeak Eibar erdian